

# BIGARREN BLOKEA: KOMUNIKAZIOA ARO GARAIKIDEAN. MASA GIZARTEA ETA MASAKOMUNIKAZIOA

## 6. GAIA: MASEN GARAIA ETA PRENTSAREN URREZKO AROA (1870-1914)

Prentsaren eragina erabakigarria izango da jendearen prentsaren  
Irratia eta zinemaren agerpena. Eredu EE.UU

### 1. ZER DA MASEN GARAIA (1870-1914) Masa gizartea hiritarra eta industrializatua da.

**Juan Pablo Fusi: “La edad de las masas (1870-1914)”, Historia Contemporanea.....**


- Bigarren Industria Iraultza.
- Aurrekaririk gabeko hazkunde demografikoa.
- Populazio-mugimendu handiak. Nekazal eremuak abandonatu eta hirietara mugitzen dira, bizi kalitatea hobetuz.
- Soldatapeko bizimodua. Hirietan soldatapeko bizimoduaren orokortzea emango da. Langileak bere lan indarra salduko du soldata baten truke. Subjektu politiko berri bat sortuko da: proletarioa
- Klase gizartea. Masa gizartea klaseetan banatuko da estamentuzko gizartea aztean utziz.
- Masen hiritar kultura gailentzen da.
  - Aisialdia eta hiritar ohituren demokratizazioa. Printzipio liberalak gailentzen dira eta sakondu egiten da liberalismoaren ideietan. Garai batean operak eta espektakuluak goi burgesiak disfruta zitzaketen.
  - Nekazal munduko baloreen alboratzea. Gero eta gizarte sekularragoa izango da. Lehenagoko erlijioaren funtzio komunitarioa, orain masa hedabideek eta kaleko ikuskizunek betetzen dute.
  - Masa hedabideen presentzia protagonista.

## 2. MASEN GARAIA ETA KOMUNIKAZIOA

- Gizarte mugimenduen sustatzaile.
- Iritzi publikoa.
- Hezitzaile funtzioa.
- 1880' prentsa popularraren bigarren (1880) (Joseph Pulitzer) eta hirugarren (1890) (William Hearst) belaunaldiak. Hasierako prentsa merkeari prentsa popularraren lehenengo belaunaldia deitu genion.
- Pentsaren urrezko aroa. Duen eraginagatik, iritzi publikoan eragiteko eta baita ere, ez duelako konpetidorerik, prentsa da masetara iristeko bidea eta daukan izugarrizko presentziagatik.
  - Eraginagatik: Ya ez da luxuzko produktu bat, prentsa kalean dago eta sektore popularretara iristen da beraz iritzi publikoa moldeatzeko ahalmen handiagoa du.
  - Kazetaritza negozio errentagarri (enpresa egitura handiak, langile asko, enpresa handikiak).
  - Izugarrizko presentzia publikoa
- Pentsaren garapena lagunduko dute:
  - Aurreko aldiarekiko demokratizatzeko prozesua. Honek lagunduko du prentsaren hedapenean, sektore gehiagotara iritsiz.
  - Demografia hazkundearekin eta jendartearen eskolatzeko camisehazkundearekin, irakurle kopurua igo. Hau gehi oinarritzeko hezkuntza hedatzeagatik, irakurle potentzialen kopurua igo egiten da. Hots, irakurle gehiago daude herrialde ezberdinetan.
  - Kazetaritza garaiko kapitalismoaren logikan sartu. kazetaritza negozio bihurtuko da.
  - Garapen teknikoek komunikazioak hobetu eta erraztu zuten, adibidez: distribuzioa hobetu zen trenbide sare berriekin

- **Kazetaritza** negozio errentagarri bat izango da. Etekinak ematen dituen negozio batean bihurtuko da.
  - Inbertsio handia. Negozio erraldoiak agertuko dira garai honetan.
  - Enpresa-egitura sendoak. Enpresa handiak direnaren erakusle.
  - Egoitzak eraikin handietan, enpresa handiak eraikin handietan. Eraikin handiak okupatzen dituzte egunkari horien egoitzak.
  - Soldatapeko ehunka langile. Erredakzioak asko handitzen dira
  - Enpresa handiak dira, enpresa gizon handiak dira kazetariak baino gehiago. Ez dira kazetariak, enpresa gizonak dira.
  - Kazetari-handikiak (“magnateak”): William Randolph Hearst (hau batez ere. Ez zen kazetaria baina enpresa gizon handia. Konpetentzia handia egin zien beste egunkarietako gizonei) Alfred Harmsworth (Erresuma Batuko kazetaritzaren enpresa-gizona), Juan Ignacio Luca de Tena (gertuena den Espainiako handiki bat izango litzateke Luca de Tena, bertsio espainola izango litzateke)
- **Enpresen arteko konpetentzia:** Kazetaritzaren arteko konpetentzia basatia sortzen da, kapitalismoaren logika dela eta.
- **Salmentak igotzeko kreatibitatea** garatu zen
  - Diseinu erakargarriagoak: ilustrazioak, koloreak (koloreen erabilera areagotu egingo da), argazkiak (ia ez dira ilustrazioak izango), titular handiak, orrialde kopurua handitu...
  - Produktuen aniztasuna: emakumeei zuzenduak, espezializatuak... Publiko jakin bati bideratutako aldizkariak sortzen dira (esaterako zezenketei bideratutako aldizkariak).
- **Industriazlazioaren laguntza**
  - **Linotipia:** Teknika bat da, argazkiak periodikoan sartzea ahalbideratzen duena (ez izatea ilustrazioak)
  - **Errotatiba:** hobekuntzak emango dira, hobekuntzak aurrerapen teknikoengatik eta hortik tiradak azkarrago aterako dira eta gehiago inprimatuko da.

- **Trenbide sarearen hobekuntza:** eskuragarritasuna edo egunkarien hedapena asko erraztuko da, lehen baino azkarrago banatuko dira egunkariak.
- **Telefonoaren agerpena (1876):** Aurreko garaian sortu ziren eagentzia notizien lana erraztuko du
- **Publizitatea eta tiraden kontrola:** Publizitatearen presentziaren aregotzearekin, interesa agertuko da zein egunkarik saltzen duen egunkari gehiago hor sartzeko publizitatea
- **XIX mende bukaeran hedabide berriak: Euskarri berrien agerpena**
  - **Kinetoskopioa (Thomas Edison, 1891)** makina erraldoia: zinemaren hastapena. irudiak mugimenduak ikusten dira tramankulu honetan.



- **Zinema (Lumière anaiak, 1895)** Hala ere XX. mendean hartu zuen batez ere indarra. Adb: Nodoak
- **Irratia (Guillermo Marconi, 1895)** Bi mundu gerretan erabiliak. Hasiera batean helburua militarretarako eta komertzialetarako erabiltzen da baina ondoren populazio orokorrerako zabalduko da.
- **Kartelgintzaren garapena.** EZ DA BERRIA baina garai honetatik aurrera gero eta gehiago XIX.mendearen bukaeratik eta bi mundu gerratan kartelgintzak hartzen duen protagonismoa izugarria da, mezuak bidaltzeko euskarri oso garrantzitsua, kartelak erabiltzen duen hizkuntzak eta diseinuak (formatuak, logoak, letra tipoak... asko hedatu) Primo de Riveraren diktaduran ere asko erabili zen adibidez, turismoa bultzatzeko

Espainia “moderno” bat irudikatzen zuten. Errusiar Iraultza Boltxebikean ere bai, Nazismoan ere bai...

- Masa alderdien agerpena emango da garai honetan, alderdi hauen ekimenez sortutako prentsa sortuko da. . prentsan sortutako eredu aniztasun honetan sortuko da masa alderdiei sortutako prentsa oso ideologizatua
- Prentsa politiko berria, alderdien egunkariak. Alderdiei lotutako prentsa agertuko da, adibide garbia egunkari sozialistak.
- Egunkari Sozialistak: indar berezi batekin agertzen diren egunkariak, hauen irakurleak normalean izaten dira kontzientzia bat garatu duten popularrak, beste popular “xumeak” beste mota bateko prentsa kontsumitzen dute, horren ideologizatua ez dagoen prentsa.

Prentsak gizartean geroz eta eragin handiagoa hartuko du. Honek eragingo duena, gobernadoreak prentsa kontrolatzeko beharra sentitzea izango da

- *L’Humanite* (1904), Frantzia. Jean Jaurès-ek fundatua.
- *El Socialista* (1886), Espainia. Pablo Iglesias-ek fundatua.
- *Avanti!* (1896), Italia.
- Egunkari konfesional katolikoak:
  - La Croix (1880), Frantzia. “Masion de la Bonne Presse”
  - Germania (1871), Alemania. Zentrum alderdiari lotua.
  - El Debate (1910-1936), Espainia.
- Elitearen prentsaren erreakzioa. Elitearen prentsa mantenduko da nahiz eta bere publikoa mugatua den, bere izaera propioa azpimarratuko dute. Hemengo egunkarian izango dituzu benetako albisteak, eta ez prentsa popularrean agertzen diren albiste populistak”

## LABURPENA

LEHEN INDUSTRIA IRAULTZA (1760-1840)	BIGARREN INDUSTRIA IRAULTZA (1870-1914)
Lehengaia: Egurrez egindako papera	Linotipia (argazkiak prentsan)
Prentsa mekanikoa (F.G.Koenig, 1812)	Errotatibaren hobekuntzak
Errotatiba (William Bullock, 1863)	Trenbide sarearen hobekuntza
Notizia agentziak (1835)	Telefonoa (1876) (Notizia agentziak)
Degerrotipoa (1839)	Publizitatea eta tiraden kontrola
Publizitatearen garapena	Kinetoskopioa (T. Edison, 1891)
1815-1870: masa komunikazioaren lehenengo belaunaldia. <b>Prentsa popularraren agerpena</b>	Zinema (Lumière anaiak, 1895) Irratia (Guillermo Marconi, 1895) Kartelgintzaren garapena
	1870-1914 Prentsaren <b>urrezko aroa</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Masa komunikazioaren bigarren belaunaldia (80. hamarkada)</li> <li>- Masa komunikazioaren hirugarren belaunaldia (90. hamarkada)</li> </ul>

MUNDU MODERNOAREN GIZARTE ANTOLAKUNTZA	
Positibismoa eta ezagutza zientifikoarekiko fede oso sendoa	
Ezagutza zientifikoa gizartea antolatzeko oinarri zalantza-ezina	
Espazioan banaketa (publiko-pribatu) eta horien esnahi politikoa	
<b>KLASEA, NAZIOA, GENEROA,</b> mundua eta gizarte harremanak ordenatzeko hiru kategoria nagusiak izango dira (hirurek elkargurutzaturik funtzionatzen dute)	

### 3. ESTATU BATUETAKO MASA BIDEEN BELAUNALDI HANDIA: Estatu Batuak izango dira erreferente.

- Sezesio Gudaren eragina (1861-1865). Gerra honetan premiazkoa bihurtu zen egunkariak irakurtzea, eta ondorioz prentsak garapen izugarria izango du.
- Estatu Batuak, munduko erreferente. Sekulako garapena izango du prentsak Estatu Batuetan premiazkoa bihurtuko delako. Munduko erreferente izango dira, ez bakarrik prentsaren testuinguruan.
- Masei zuzendutako prentsaren izugarritzko garapena ulertzeko erabilgarriak diren faktoreak: (Bereziki New Yorken emango da)
  - Industrializazio prozesu sakona.
  - Langile antolatuak.
  - Hirietara bizitzera doazen populazio-mugimendu handiak.
  - Urbanizazio prozesu azeleratua.
  - Komunikabideen (trena) garapena.
  - Hiriko kultura ere garatuko da.
- Kazetaritzak negozio izaera hartu zuen. Hedabideak enpresa handiak bihurtuko dira. Komunikazio kateak = negozio errentagarri berriak. Petrolioarekin lotuta eta beste negozio askorekin lotuta baina baita kazetaritzarekin ere.



(Eraikin altuena, politena, handiena: New York World Building izeneko Joseph Pulitzer hedabidearena da)

- Kazetari-handikien garaia (Joseph Pulitzer, William Randolph Hearst, Edward Willis Scripps (ez dugu ikusiko)).

- Kazetaritzak funtzio berria. Hau bereziki Pulitzerrek garatuko zuen, Funtzio berri honen paradigma

- Bidegabekeriak salatu (helburua izango da gizarteko gai polemikoak argitaratzea, salatzea... Konpromiso soziala)
- Gizartea hobetzea . Ez da salatzen eskandaloa sortzeko, baizik eta gizartea hobetzeko.

*Jainkoaren nahia izan dadila kazetaritza goi-idealak erdiesten ahalegintzea; eguneroko eskola bat zein epaimahai bat izatea; egunero irakasle bat eta tribuna bat izatea; justiziaren tresna bat izatea, bidegabekeriarentzako izua izatea, hezkuntzarentzako laguntza bat izatea, Amerikanismoaren adierazle izatea (J. Pulitzer)*

- Kazetaritzak ezaugarri berriak:

- Erredakzio handiak: lan-taldeak, zereginen banaketa, tarteko-zuzendaritza, kaleko berriemaileak, espezializatuak...
- Egunerokotasunaren gai berriak sartu. (kirolen presentzia handia)
- Kalitate hobea denbora gutxiagoan.
- Emakumeen presentzia handiagoa [Nellie Bly, Frances Willard (*Bere ustez edaten eta erretzen ez zuten emakumeen profesioa izan beharko litzakete kazetaritza*), Winifred Bonfils...]. Sufragisten garaian gaude, emakumeen presentzia erredakzioan nabarmenagoa izango da.

- **The Yellow Kid:** Richard F. Outcault marrazkilariak sortu zuen panpina da. Panpin horri “amarillismo” hitza zor diogu. *Prensa amarilla*: emozioetara iristeko sentsazionalismoari erabiltzen denean, titulares llamativos y escabrosos para exagerar mucho y aumentar las ventas

Garai honetako bi kazetari handiki, nolabait eskola sortuko dutenak eta kazetaritza egiteko belaunaldi berriari hasiera emango diotenak:



- **Joseph Pulitzer (1847-1911) eta kazetaritza berriaren aita (bigarren belaunaldia, 1880 hamarkada)**

- Bereziki Pulitzer izango da belaunaldi berriari hasiera emango diona, eta beste hainbat egunkariak erreferentzia gisa hartuko dutena
- Bien arteko ezberdintasuna: Pulitzerrek egiarekiko erresponsabilitatea duela esaten zen
- Prentsa popularraren bigarren belaunaldiko pertsonaia garrantzitsua.
- Pulitzerren bizi historia eta Amets Amerikarra.
  - Hungarian jaioa eta Estatu Batuetara emigratu zuen gero
  - Sezesio gerran parte hartu zuen
  - 1867 kazetaritza lanetan hasi
  - 1875 urtean *St. Louis Post-Dispatch* erosi bere lehenengo egunkaria, eta hor kazetaritza estilo berria garatu.
  - Dirua irabazten joango da, egunkari gehiago erosi prentsa-enpresa handia sortu arte
  - *The New York World*-en gertaera mitikoa kazetaritzaren historian (horren arrakastatsua da, edizio gehiago aterako dituztela: arratsaldeko edizioa, Evening World; eta igandekaria; Sunday World). Egunkari hau banca-rotan eta desagertzeaz zegoen Pulitzerrek erosi arte. Kazetaritza egiteko bere moduari esker lortu zuen egunkaririk salduena izatea. Pulitzerren kazetaritza berriaren adibiderik esanguratsuena izango da. Hain arrakastatsua izango da, non arratsaldeko edizioa aterako zen.
  - Oso garrantzitsua izango da Pulitzer eta bere kazetaritza gizarte kanpaina eta proiektu desberdinak bultzatu zituelako: bere donazioei esker Columbiako Unibertsitatean kazetaritza eskola garrantzitsua sortu zuen.

- Pulitzerren kazetaritzaren ezaugarriak: Ezaugarri hauek bat egiten dute era perfektuenean “The New York World” horretan.
  - Publikoaren ezagule aparte: bazekien haiekin “hitz egiten”. New Yorkeko publiko imigranteari zuzendua izango da hasieran, bera ere imigrantea zen. Hizkera ere publiko imigrante horri zuzendua izango da, arrunta, argia eta ulerterraza.
  - Formatu oso deigarriak eta erakargarriak erabiliko ditu eta garaiko montonia apurtuko da koloreekin, komikiekin, irudiekin, ilustrazioekin....
  - Marrazkilari finak (Richard F. Outcault → The Yellow Kid sortu zuen marrazkilaria besteak beste) Komikiak ere erabiliko dituzte, garaiko marrazkilari bikainenak kontratatu zituzten. Hearst eta Pulitzerren arteko gatazka eta lehia hasten denean Hearst-ek lapurutuko dio Pulitzerren marrazkilari hori.



- Sentsazionalismoa eta kopromisoa orekatu:
  - Inpaktuzko edukiak, zirraragarriak.
  - Gizarte-gaiekiko konpromiso sakona erakutsiko du bere egunkarietan. Prostituten eta langileen egoera, beti egingo da politikoen ustelkeria salatzen...
  - Kazetaritza zerbitzu publiko bezala ulertu zuen

- Kazetaritzaren gizarte-funtzioa: *“Jainkoaren nahia izan dadila kazetaritza goi idealak erdiesten ahalegintzea; eguneroko eskola bat zein epaimahai bat izatea; egunero irakasle bat eta tribuna bat izatea; justiziaren tresna bat izatea, bidegabekeriarentzako izua izatea, hezkuntzarentzako laguntza bat izatea, Amerikanimoen adierazle izatea.”*
- Egunkaririk kanpaina ezberdinak:
  - Ustelkeriaren kontra.
  - Benefizientziaren aldeko kanpainak burutu zituen.
  - Prostituzioaren kontra.
- Auto-promozioa eta publizitatea: Kanpainak ez ziren soilik herriari dirua emateko, beren burua baita autopromozionatzea lortzeko ere
- *Newsies* edo *Newsboys* umeak. Nueva Yorkeko kaleetan egongo ziren egunkari saltzaileak umeak izango ziren. Honen bitartez kaleak bere egunkariekin zipiritintze alortuko zuten eta kosru oso baxuetan. XIX. mendean greba bat egin zuten lan baldintzen ondorioz. Horregatik, hemen zalantzan jarriko da Pulitzerrek aitortutako konpromezu soziala.
- Pulitzerren eragin politikoa oso garrantzitsua.
- Notiziarik ez dagoenean, probokatu (asmatu gabe):
  - Nellie Bly eta *“Ten days in a Mad House”* (berak idatzi zuen liburua)(Muckracker) ustelkeria kasuak destapatzen dituen ikerketa kazetaritza edo kazetaritza modua egingo zuen. Horregatik deritzogu eragin politiko handia izango zuela.

- Nellie Bly eta munduari bira →Julio Bernen nobeletatik aterako da ideia hau. Munduari buelta ematen zien bitartean new yorkera bidaltzen zituzten notizi guztiak. Haiek desiatzen egoten ziren notiiz hauek jasotzeko

72 egunetan eman zion bira munduari, Elizabeth Bizland-ekin batera (Cosmopolitan)

- **William R. Hearst (1863-1951) eta arimarik gabeko kazetaritza horia (hirugarren belaunaldia, 1890 hamarkada)**

- Gizon diruzale eta boterezalea izan zen.
- Bere helburua beti izango da Pulitzerrek baina gehiago saltzea, berdin dio zer egin (kontrastatu gabeko informazioa eskaini, gezurrak...) dena izango da gehiago saltzea
- Prentsa popularraren hirugarren belaunaldiko pertsonaia garrantzitsuena.
- Kazetaritza forma berria egingo du
- Kaliforniako arrantxo-jabe aberats baten semea.
- Harvard-en hasi zituen Enpresa Zuzenbide ikasketak 1887 urtean kanporatu zuten arte.
- **San Francisco Examiner** egunkarian zuzendari .Guk baserriak apostatzen genituen bezala amerikarrek egunkariak apostatzeko ohitura uzten. Bere aitak irabazi zuen apostu baten ondorioz. Hor hasiko da apur bat bere estiloa sentsazionalismoa garatuz. Egunkari gehiago erosten joango da eta New York hirira egingo zuen saltoa eta bere helburua izango zen Pulitzer "garaitzea". Gainera, lortuko du egunkari hau Pazifikoko egunkari salduena izatea.
  - Titular deigarriak
  - Biñeta satirikoak politikarien kontra gizarteko egoera ezberdinak salatuz
  - Sentsazionalismoa, espekulazioa, oldarkortasuna, editorial garratzak, batzuetan irainez josiak... Estilo hori garatuz lortuko du:
  - Pazifikoko egunkari arrakastatsuen bihurtu.

- 1895 urtean The New York Morning Journal erosi (The New York Journal) New Yorkeko kokatua eta bere lehiakidearen ondoan kokatuta, Pulitzerren aurkako lehia hasiko zen.
  - Egunkariaren prezioa jaitsi. hau izango da lehen neurria. saiatuko da Pulitzerren kolaboratzaile finenak lapurtzen diru gehiago eskainiz.
  - Pulitzer-eri kolaboratzailea “lapurtuko”
  - Helburua: Pulitzerren salmentak gainditzea
  - Konpetentzia basatia
  - Pulitzerren ezaugarriak muturrera eramane zituen. Kanpainak eta publizitatea egitea esaterako. Bihotzgabeatasun hori ikusiko zen
  - **The New York Journal**en garatu zituen ezaugarriak:
    - Informazio deigarrien bila: espekulazioak, desinformazioa, manipulazioa eta kontratatutako gabeko argitalpenak
    - Formatu deigarriak
    - Seriotasuna ezabatu
    - Editorial oso erasokorrak
      - Imperialista, Monroe Doktrinaren defendatzailea
      - Ultra-kontserbadorea
      - Arrazista: gorroto berezia gutxiengo hispanoari eta mexikarrei
      - McKinley kasua. Estatu Batuetako presidentea izan zen McKinley; eta Kubako gerra egon zenean Hearstek presio handia sartu zion Kubako independentzia gerran sartzeko. Eta presio horretan bere kontrako irainak sortu ziren McKinley-ren kontrako kanpaina batean.

- Komunikazio-gune erraldoia eraiki zuen:
  - Egunkariak: American, Examiner
  - Aldizkariak: Cosmopolitan, Harper's bazaar, Motor...
  - "International News Service" agentzia propioa (1909)
  - Zinema eskoiztetxe bat erosi zuen 1911.urtean eta bera izan zen lehenengo gizon enpresaria notizia-zinema egiten. (segundu gutxiko notiziak)
  - Hainbat irradi-etxeen jabe izan zen
- Politika mundura salto egiten saiatu zen baina publikoak ez zuen begi onez ikusi, egunero egoten zen politikarien jarrera salatuz eta gero berak politikan sartu nahi zuen eta azkenean bere negozioetan zentratu zen.
  - 1903: Kongresurako hautagai
  - 1904: Etxe Zurirako hautagai, independente
  - 1907: New Yorkeko alkatetzarako hautagai
  - 1909: New Yorkeko gobernadore posturako hautagai.
- Politikan iritzi publikoak bizkar eman zion
- Elitearen egunkari serioak mantentzen dira:
  - Amarillismoarekin nekatutako publikoa
  - Lehenengo ereduari lehial mantentzen den publikoa
  - *The New York Times* eta bere "All that deserves to print"
  - Ekonomian espezializatutako prentsaren garapena: Kalitatezko prentsaren barruan, ekonomian espezializatutako prentsa agertuko da. Eta horien artean hurrengoa izango da garrantzitsuena:
    - The Wall Street Journal (1889)

#### 4. EUROPAKO BELLE EPOQUE ALDIKO PRENTSA (1870-1914). Estatu Batuetako eredu izango da hegemonikoa

- **BRITANIAR NEW JOURNALISM**

- **Pall Mall Gazette**: Thomas Steaden eskutik hizkuntza zuzenago bat (1880tik). Hizkuntza berri bat inkorporatzen dio, nolabait sentsazionalismora gerturatzen da notiziak erredaktatzerako orduan. Langileen lan baldintzak hobetzeko asmoa.
- **Tits-Bits** (1881): George Newnes-en ekimena. Komentatutako eta apaindutako egunkari zatiak eta promozio kanpainak. “Altxor txikiak”; egunkari honen oinarria, beste egunkarietako albiste gehigarriak moztu eta apaindu egiten ditu, hori da bere berrikuntzarik nabarmenena.
- **The Star** (1888) gai arinak eta formatu deigarriak. Sentsazionalismoak garatuko duen kazetaritza horretara gerturatzen hasiko da.
- **Review of Reviews** (1890): Hilabetekaria, Pulitzerren jarraitzaile. Pulitzerren eredu gehien gerturatuko dena.
- Alfred Harmsworth (1865-1922) oso tipo garrantzitsua garai hartan, botere handia izan zuen gizartean.
- Viscount Northcliffe edo “Prentsaren Napoleon” deitu izan zioten bere gairaian. Bere enpresaren barruan garrantzitsuak izan ziren egunkariak:

Bere ekimenen hasieran sortu zituen egunkariak:

- **Answers to correspondents** (1888) astekaria.
- **Evening news** (1894) arratsaldekoa.

Bere bi altxor edo egunkari garrantzitsuenak:

- **Daily Mail** (1896), “talking point” gaiak. Bere egunkarien artean altxorretako bat izango zen, Daily Mirrorrekin batera. Klean erabiltzen diren gaiak, jendeak barneratzen ditu. Ildo editoriala kontserbadorea dela esan dezakegu. Prentsa sentsazionalista garatzen du.
- **Daily Mirror** (1903). Egunkari grafikoa, *tabloid* tamaina (Gure karpeta edo plastiko normal baten tamaina). Elementurik garrantzitsuena grafikoak eta argazkiak

izatea izango da, obsesioa zuen argazkiekin. klase ertaineko egunkari gisa agertu zen baina denborak aurrera, ez da langile klasearen egunkaria izango baina langileek asko irakurriko dut. Bere portadetan ikusgarritasuna garatuko du. Titanicen hondoratzea ere bertan egon zen argazki pilo batekin, oso esanguratsua izan zen.

## ● FRANTZIAKO LE PETIT JOURNAL

Frantziako testuingurua apur bat desberdina da. Beste herrialde batzuetan egunkari berriak eredu berriak ekarriko dituzte. Frantzian berriz aurretik zegoen egunkari bat izango dute eredu.

- Konpetidore berriak: *Le Matin* (1883) eta *Le Petit Parisien* (1876). Bi egunkari berri hauek *Le Petit Journal* en konpetidoreak izango dira. Teknika eta komunikatzeko teknika berriak barneratuko dituztenez lehian egongo ziren.
- *Le Petit Journal* da eredu nagusia. Berrikuntza asko egiten zituen *Le Petit Journal* en eta horregatik konpetidore berriak agertu zitzaizkion: *Le Matin* eta *Le Petit Parisien*.
- *Le Petit Journal* -ren berrikuntzak barneratuko ditu bere plantillan:
  - Erreportaje eta elkarrizketa gehiago.
  - Lan-talde gaztea, idazkera-estilo garaikideak.
  - Albisteen probokazioa. (Pulitzerren ildoan) Pulitzerren eredua jarraituz, notiziak probokatu egingo ditu. Adibidez
  - Txirrindularitza eta auto txapelketak antolatuz. Gero berak horren berri eman dezan txirrindularitza txapelketan irauten duen bitartean
  - Gehigarriak: moda, nekazaritza, aisialdia, musika.



- **ESPAINIAR TESTUINGURUA**

- Borboien Berrezarkuntza (1875-1931).
  - Alfonso XII (1874-1885)
  - Alfonso XIII (1885-1931) [1885-1902. María Cristinaren Erregeordetza] Ondorengo puntuak asko interesatzen zaizkio:
    - Azken kolonien galera. (Pariseko Hitzarmena, 1898) Prentsan bideratzen diren albistek Espainiar Estatua krisi batean sartzea egingo du. Jendeak bere ideiak transmititzeko prentsa erabiliko du. Hori dela eta, prentsa oso garrantzitsua izango da.
    - Nazionalismo periferikoen agerpena. Euskal nazionalismoa eta katalan nazionalismoa garatzen doa. Nazioen hierarkia hori geure egiten dugu (España mierda bat da)
    - Langile mugimendu indartsua (sozialistak eta anarkistak). Dekadentziaren testuinguru honi lagunduko dio
    - Endekapenaren (dekadentzia) teorien garapenerako testuinguru aparta. Espainia pikutara doan heinean, guk (katalanak euskaldunak, gure izaera garatzen eta
- 1883 urteko Inprenta Legea (Mateo Sagasta Legea). Lege berri onek aurreko errepresioarekin "amaitzen" du. Lehenagoko testuinguru aske horretara gerturatu da egoera.
- Kazetaritza fase industrial batean sartu zen.
- Prentsaren itxura erakargarriagoa. Egunkari ezberdinak titular handiak, koloreak, argazkiak... barneratzen saiatuko dira.
- XIX.mende bukaeran nabari da sentsazionalismoaren "hizkuntza". Tirada asko eragin zuten bi gertakari garrantzitsu:
  - Fuencarral kaleko hilketak (1888)
  - Kubako Independentzia gerra (1898)
- Egunkariak, pixkanaka, elementu grafikoak barneratuz doaz.

- Aldizkari grafiko modernoen agerpena. Prentsa grafikoaren barruak nagusi izango direnak:
  - Blanco y Negro (1891) bere bizitza luzeagoa, ABCrekin zetorren lehen
  - Nuevo Mundo (1894)
- Argitaletxe ezberdinak eta komunikazioaren handikiak.
  - Sociedad Editorial de España (egunkarien trust-a), Miguel Moya Ojanguren. Hiru egunkari hauek izango dira Estatu Batuetan egiten den prentsara gehien gerturatzeko direnak:
    - *El Imparcial*
    - *El liberal*
    - 1906 urtetik *Heraldo de Madrid*
  - La Papelera Española eta Nicolás María de Urgoiti. Berez paperaren negoziaren eremuan hasi zen baina denborarekin kazetaritzaren munduan sartu zen eta bi egunkari osos garrantzitsu ireki ztuen: el sol eta la voz
    - *El Sol* (1917) eta *La Voz* (1920).
    - *Febus* (1924) notizia agentzia.
    - Sociedad Prensa Gráfica: *La Esfera*, *Mundo Gráfico* eta *Nuevo Mundo*.
    - Compañía Anónima de Librería, Publicaciones y Ediciones (Calpe)
  - Prensa Española eta Torcuato Luca de Tena. Prentsa Española izango da Torcuato Luca de Tenako kontserbadoreekin lotura estua izango duen enpresa gizona.
    - *Blanco y Negro* eta *ABC*.
    - *Gedeón* astekari satirikoa.
    - *Gente Menuda*, *Actualidades*, *El Teatro*, *Los Toros*, *Ecos*. *Diario de la noche*.

- Prentsa espezializatua: La Lidia, Los Deportes, Madrid Cómico, La España Moderna.
- Enpresa Egunkari nagusiak: La correspondencia, El Imparcial, El Liberal eta Heraldo de Madrid. Gehiago gerturaten dira hauek beste herrialdeetan tirada handiena lortzen duten sentsazionalistetara
- Katolikoa: El Debate.
- Alderdi Sozialistarena: La lucha de clases (Bilbo)
- Anarkista: La Revista Blanca.
- Euskal nazionalistak:
  - **Bizkaitarra** (1893-1895) EAJ agertu baino lehenagoko egunkari bat da. Sabino Aranak idatzi zuen eta bertan bere planteamendu guztiak agertzen dira.
  - **Euzkadi** (1913-1937) EAJren organoa edo egunkaria da hau.
- Prentsa euskaraz: **Euskaltzale** (1897-1899) Berez politikoki independentea da baina euskal nazionalismora gerturaten zen.
  - Resurrección María de Azkue.
  - Astekari informatiboa.
  - Argazkiak.
  - Korrespontsalak (apaizak ziren).
  - Partiturak, komikiak, kirolak, folletinak (Peru Abarka, Gabonetako ikuskizunak) folletina: zatika publikatutako nobelak
- Egoeraren araberako tiraden hazkunde “artifiziala”: Garai honetan zer planteatzen da, AEBn adibidez populazioaren baitan sartuko dela egunkariak irakurtzeko beharrezana eta horrek tiraden hazkundera ekarriko duela. Beste herrialdeetan berriz tiraden hazkundera gertaera garrantzitsuen ostean gertatzen zela esaten zen

- Fuencarral kaleko hilketa (1888) Notizietan agertzen ziren irudiak ziren: jende pila bat epaiketa ikusi nahiean kola egiten, oihartzun handiko gertaera izan zelako.
  - Luciana Borcino, emakume diruduna agertu zen bere etxean hilda, ahoan trapu bat zuela petroleoarekin bustita, agertu zen hilda
  - Higin Balaguer, zerbitzaria ondoko egongela batean agertu zen inolako zentzurik gabe beraz bera izan zen ikerketaren susmoa, nahiz eta berak epaiketan zehar Luciana Borcinoren semeari egotzi hilketa. Semeak behartu omen zuen zerbitzaria odola garbitzera eta petrolioia erostera gorpua erretzeko.
  - José Vazquez-Varela, bizimodu bohemioko jauntxo gaztea. Luciana Borcinoren semea zen y era un Don Juan, bizitza bohemio bat zuen “el señorito rico que hace lo que quiere”. Epaiketan bere izena atera zen baina bere defentsan esan zuen momentu horretan bera Kartzelan zegoela. Hala ere badirudi kartzeletik nahi zuen momentu guztietan ateratzen zenla, bertako funtzionario batekin oso harreman ona zuelako. Beraz ez zen sekula frogatu ea etxeko zerbitzaria bakarrik edo bere semea ere izan zen
  - Sekulako jarraipen mediatikoa izan zuen istorio honek
- Kubako Independentzia gerra (1895-1898). (Iruzkina honi buruzkoa landuko dugu)
  - Nazionalismo espainiarra oso sutua zirkulazio handiko prentsan.

“Quedamos, pues en que ni el horrísono fragor de tantos millones empleados, ¡a saber como!, en aspectos militares; ni esos buques de guerra que van y vienen y pasan 100 veces por los mismos sitios (...) ni esos supuestos ejércitos invasores de Cuba (...) ni toda esa potencia material, pero inorgánica y desprovista del elemento espiritual y colectivo que solo forman los siglos y las tradiciones gloriosas, causan en nuestra patria pavor alguno.

Más fuerza material que la que poseen los EEUU respecto a España tiene un toro en relación a un hombre, y sin embargo al toro, se le torea”.

*El Imparcial*, 1898 urteko martxoak 15

- Euskal nazionalismoaren ikuskerak diskurtso hauen logikan txertatu ziren/haietaz baliatu ziren.

“No sabemos qué tienen en la sangre ciertas razas que todo cuanto está en contacto con ellas degenera y se prostituye. Ejemplos de ello nos da en abundancia la historia del pueblo romano y la historia de las naciones que llevan en su sangre la sangre latina. Mientras en **los Estados Unidos de América alcanzan las ciencias un grado tal de adelanto que causa asombro, la América latina cierra las puertas al progreso y las abre de par en par a todos los vicios”**.

Sabino Arana: “Vocación de esclavos”, *El Correo Vasco*, 1899ko abuztuak 25.

- Frankismoak XIX bukaerako endekapenaren teorietan aurkitzen du bere diskurtsoaren oinarri zabala. Haren ustez:
  - Francok, antzinako handitasunaren (nazionala / maskulinoa) berreskurapena dakar.
  - Nazioaren “birsorkuntza” dakar, endekapenaren mamuak errotik ateraz

“No queremos el progreso, el romántico y liberal, capitalista y burgués, judío protestante, ateo y masón progreso yanqui. Preferimos el atraso de España, nuestro atraso, el que nos lleva a considerar que ante unos valores fundamentales deben sacrificarse los intereses materiales”.

Antonio Castro Villacañas.

- **Testu iruzkina egiteko ideiak:** Kubako Independentzia gerra (1895-1898).
  - Prentsa nazionalismo espainiar asaldatuaren bozeramailea eta aztoratzailea
  - Egunkari nagusiek balore espiritualen goraipamena. Balore horiekin eta ez potentzia militarrekin gerra irabaztea planteatzen zuten.
  - Penintsulako irakurleen gogoak berotu eta Espainiaren porrot militarrei muzin egin
  - Bereziki *El Imparcial* eta *El Heraldo de Madrid*-ek klima emozional jakin bat sortzen eta puzten lagundu zuten.
  - Klima horrek ondorengo kolpe morala sakonagoa izatea lagundu zuen
  - Behin gerra galduta:
 

“La guerra con los Estados Unidos no era popular (...) FALTA DA!

”“Lo que dice Echegaray”, El liberal (...)
  - Gerrak identitate krisi sakona eragin zuen
 

“Una nube general de silenciosa tristeza que presta como un fondo gris FALTA DA!”

Francisco Silva (...)
  - Nazionalismo euskaldunak eta katalanak diagnostiko honetan sakondu zuten.
  - Langileen mugimenduek gerraren kontrako jarrerak.
  - Estatuaren ikuspuntutik (nazionalismoa eta langile mugimendua) endekapenaren eta gaixotasunaren beste bi eragile ziren.
  - **Estatu Batuetako prentsak** lagundu zuen gerraren aldeko iritzi publikoa orokortzen eta **Espainiaren irudi dekadentea nazioartean zabaltzen eta finkatzen.** Honek asko lagunduko du Espainiaren dekadentzia, eta

gainera adierazten du Estatu Batuetako prentsak duen indarra.

- Hearst-en kazetaritza eredua orokortu egingo da
- Prensak lagundu zuen Estatu Batuen esku-hartzea ezinbesteko bezala agertzen
- Estatu Batuetako prentsan jarraipen berezia izan zuten hiru albiste: (Estatu Batuetako prentsan oihartzuna izan zuten 3 gertakariak)

- **Clemencia Arango: ustezko espioiaren istorioa (1897)**

- Itsas-ontzi amerikar batean NY hirira.
- Funtzionario espainolek atxilotu eta miatu egin zuten.
- Sexu-jazarpena salatu zuen Hearstek, naiz eta gero Clemenciak esan zuen matrona batek egin ziola miaketa eta ez zela sexu-jazarpenik izan esan zuen. Hearstek ordea ez zuen ezeztatu esandakoa
- Titular ezberdinak:
  - *“Gure banderake amkumeak babesten ditu?”*
  - “Espainiako funtzionarioen (...) INFORMAZIOA FALTA DA
  - (...) INFORMAZIOA FALTA DA

- **Evangelina Cisneros-en ihesaldiaren albisteak (1896)**

- Kubatar idependentista matxinoa.
- 1896an kartzelan sartu zuten.
- Hearsten gutun eta eskaera kanpaina.
- Kazetarien laguntza izango du kartzelatik ateratzeko: Karl Decker.

- Kartzelatik ihes egin eta New Yorkera joan zen Cisneros.
- “Ekintzak burutzen dituen kazetaritza”. Harrotasunez planteatuko du Hearstek bere kazetaritza.
- **USS Maine itsasontziaren hondoratzearen albisteak** Hearstek esan zuen itsasontzia hondoratzearen arduraduna.
  - Gerra deklarazioa piztu zuen *gertakaria*.
  - Hearstek espainiarrei leporatu zien ontzi amerikarraren leherketa
  - Estatu Batuak Kubaren “askapenean” lagundu behar dute.
  - Hearstek helburu bakarra notiziak probokatu (Askotan gezurrak) eta engunkariak saltzea zen. Pulitzerrekin bereiziko da honetan, honek ere berriak probokatzen baizituen baina ekintzak antolatuz ez gezurren bitartez
  - Hearsteri egozten zaion esaldia: “*You furnish the pictures; I’ll furnish the war*”.

William Randolph Hearst